

Amaren Gabon kantak

Gabon kanta zahar soria ederraren jabe da gure ama. Lehen gehiago omen zekizkin, baina batzuk ahaztu bazakioz ere, hamar sail bilduak dauzkat, beste hainbeste soinurekin.

Gure ahoko literaturaren aberasitazunerako direnez, noizbait eta nonbait argitaratu beharrean naiz, baina gaurko hontan bikoiz zenbait aial egun hauen ospagarri.

Gure amak maiz esan didanez, kanta zahar hoiak bere aitagandik ikasiak, omen dira. Gure amak larogetahiru urte udaberrian bete zituen, aitonarik ez nuen ezagutu, baina edonola ere, joan zen mendean hark kantatzen zituenak dira eta beren beztasunetarik bat Arabako euskararen erabilizten zirenak izaten dira.

Otxandio, Bilerle eta Zigoitia aldean bai zituzten sustraiak. Baina, kantak, beste ezer baino gehiago modak mugitzen dituzte, irakurleak igarriko dio horietako batzuk gipuzkerazko egitura dutela, beste batzuk Bizkai eta Arabakoak diren bezala.

Beraz, erroak Arabakoak izanik ere, beren sustraiak zahalago nabari dira. Argi ikusten da horietako batzuk irudi-aurkezpenetarako geratuak direla. Esaten duenez, abenduko hilaren sartzeaz bat, hasten omen ziren kantak, eta horietan lehena, honako hau izaten omen zen:

**Abenda santu honetan
Kristoren jaiotzia.
Alegera begi mundua,
oraintxe da denpora.**

Jose Maria,
Ai Mari, ai Jose.

Argi dago Gernikaldean "Marijesiak" deritzenen abakina "Marijesiak" deritzenen abakina dela. **Marijesiak. Lekuak Anuario de "Eusko-Folklore"-n (XIII, 1933, 37. orr.)** jaso zituenetik oso ezaguna

dira, eta besteak beste, oraintsuago J.A. Arana Martija adiskideak lan ederrik eskaini digu horiaz.

Doinu eta era bereko bertso asko omen ziren. Ikusten denez, Jesus Haurraren sorreraz eginak. Doinu eta euskaritzo bera errepikatuz, beste zenbaiten artean azaltzen dira bertso hauek:

**Biltozik jaiorren
ez zara zu pobria,
zeruan josirik dago
Zuretako erropia.**

**Zein izango ote da
haretzen josia?
Errege don Felipen
alaba linaia.**

Errege Felipetarik zein apiatzen ote zen? Bosgarrena zen izen horretakoen azkena. Bera baitzi, XVIII.

mendearren lehen partean jartzekoa da. Baina gure artean hots handia izan zuena, zera zen, Felipe IV.aren alaba, Maria Teresa infantea, Frantziako Luis XIV.ekin ezkontzeko 1659an Pirineoetako Bakea jarri zuena. Edozelatan ere, kaniaren zahar-tasuna adierazten digun apimena da. Gainera, norik daki aintziazagokoari Felipearen apimena ez ote zioten erantsi? Bestalde, gipuzkeraren ikutua dute bertso hoiak.

"Aitor, aitor..." hasten dena da beste kanta bat, baina ez Azkuek Otxandion bertan jaso zuen bezala, baizik ere herrikoioagan. Bere herri Gogoz, liburuarren 30. orrialdean eman nuen.

Doinu alai baten bidez kantatzeko egina dena izan daiteke guztietarik biziena: 1927. urtean Euskal Esmalea aldizkariaren 244. orrialdean jaso zirenen antzerakoak dira; baina hauen doinurik ez dakigu eta hauena bai: **Hogeta laugarrena degu abenduan,**

desio genduna
logratu genduan.

**Gaueko hamabiak
jo daben orduan
gure Salbadoria
jaio da munduan.**

Hoi ez gainera beste sei bertsoekin gogoratzen da gure ama, eta azken urteotan Eibarko ikastolako haurrak kantatzen dituzte, Jesus Mari Arrietak gure amandik ikasi eta herriko neska-mutikoei erakutsiz.

Horrela, lege zaharra beteaz, herriarena zena, bertiz herriarentzat.

Kantok, garbitalde batzuntzat hain txukunak ez badira ere, horrela zen guztietarik eteketen herriaren euskara jaiorria, eta ez batzuen ames galduetakoa.

Politikaren artean bada beste bat hiru bertso baizik jaso ez ditudana, eta beraien artean kantatzen den euskari erako bertso bizkorrez laguntzen dena:

**Itxu-soinuan dator,
pastoriak dantzan,
Jesus jaio dalako
Belenen lastatsan
eta horregatik daukagu
legatza bai saltsan,
beste bixigu handi bi
erretzen brasatzen.**

Eta, hura hemen horrela hasten diren bertso sailaren euskaria: **Heldu dok Gabon mutilak,
atara ardu zarra,
jan Jeigun meza ostein
kapioren itarra.
Joik Anton, dantzan ein deigun,
besapeko kitarra,
indar gehiagoz goiazak
jai ostein goitara.**

Gure egunotan Bizkai aldean zabalduago den kanta: **Gabon gabian usu degunok
guztiok apari on bat**

legaz, bixigu, bakillan saltsan,
bakotzak aldabentxuagaz.

**Gero txarrun plan-plan!
Katuak hartuta, iges igesika.**

Argitu beharra dago "katuak hartzea"; mozkorrak hartzea dela, inguru haletan lehengo argotean.

Beste bat, euskari orra doinua aldatuz eta familiaro itxikiaren izena aipatuz kantatzen dena; eta gure Oler itxikiaren zenean jasoa, honako hau da:

**Gaur dala Belen,
Gaur dala Belen!
Jaioa da Jesus Nazaren,
Gabon gabedian bere amak
altzuan dantzan erabilen.**

**Oiertxo, zer egiten dok hor
supaztarrian jarririk?
Joan arin arin Belenera ta
zer barri dan jakin eginik.**

Gaurkoan, honenbeste, Urte-berri eta Erregeentzakoak beste baterako utziko ditugu. Behar bada beste askok ere izan lezake gurasoengandik zerbait jasotzeko aukera eta aldatuak hesterik ez badira ere, merced du bilteza, gure ahoko literaturaren aberasgarri.

Beste gabe, Eguberri zorianiuk opa dizkiet irakurleak.

Juan SAN MARTIN

La Navidad siempre se presenta alegre y festiva, a pesar de los rigores del tiempo, e incita a una mirada retrospectiva. Y tal vez más que a los de nuestra generación, a nuestros mayores les unía a los lazos del vínculo familiar. Mi propia madre, que la pasada primavera cumplió los 83 años de edad, vive con mayor intensidad esa nostalgia del pasado y ella es poseedora de un buen repertorio de canciones navideñas, que las aprendió de su padre cuando ella era niña. Así he podido recopilar hasta diez cancio-

nes distintas, con sus correspondientes melodías. La más extensa de las mismas es de ocho estrofas, en lo que recuerda. Dichas canciones tienen la particularidad de ser cuantiosos de las postrimerias del pasado siglo y del área limitrofe de Alava y Vizcaya. De las inmediaciones de Ochandiano, Villarreal y nes de Ochandiano, Villarreal y nes de Cigoitia. Por consiguiente, valle de Cigoitia. Por consiguiente, de la variedad dialectal alavesa, cuyo último reducto viene a ser el barrio Olaia de Ochandiano, las personas adultas de Aramayona, las pocas ancianas de Villarreal y los pocos ancianos de Urrunaga, Ollerías, Elso y, tal vez, algún otro lugar olvidado de aquella zona.

La mayoría de estas canciones populares debieron servir para las presentaciones de los actos para Nochebuena. Se les puede atribuir un remoto parentesco con la obra de Pedro Barrantia, y muchas vienen de Guernica. No se olvide que también éstas fueron para representar el novenario de Nochebuena. Hay una que, por la alusión al rey Felipe, se pueda remontar al siglo XVII. La modistilla que María Teresa, por la repetición que tuvo en nuestro país la Paz de los Pirineos (1659).

Una alegre marcha recogida de este acervo, por obra y gracia de Jesús María Arrieta, desde hace siete años forma parte del repertorio de un grupo escolar que sistemáticamente recorre las calles de Eibar.

Con el presente trabajo, al propio tiempo que desear mi felices Pascuas a los lectores, ofrezco una muestra de las referidas canciones.

Gabonetako kantak (II)

Gabon egun goizean lanixo hau idatzera ezarri naiz. Lizardiren poema samur bat datorrik gogora:

**Gabon egun goizean
Jaun Aita pozik
jaiki, ta aingerutxoak
horra nun bildu ditun
esanik:**

**Poztu, ene itxiok,
gaur arratsan,
aurtxorik ederrena
jaiotzekoa baita
lurrean.**

Gabon aurreko gau honetan ez tuntu diut Gernikako Marijesiak, bederatzigarrena kalerik kale amaitzen. Kantariak eta itxulariek dabilta orain misteriozko goiz hau alaitzen. Arratsan ospatuko dugu Jaunaren etorrera eta beti bezala gabon kantak izango dira ugari kaleetan eta gure etxeetan. Norik ez du abestuko gaur Aitor, ator mutil etxera? Aitor urrun, espetxean, atzerrian, gaiztotokian hagón seme, alaba, pake ateak zabaldu baitira:

**Idigi dira zeruko
ate diamantezkoak
ta heurrekin batera
leio itzarrezkoak**

Marijesiatoko bertso batek esaten duen bezala.

Baina Aitor, ator abesti eder honen historiazko egitera noaizue, herriko kanta batzuen atzerria egietokan geratu nintzan lehengo egunean eta.

Azke jauna ekarri behar dizuet gogora hasterakoan eta urtea bukatu orduko zera esan: 1981 can bete dira 75 urte Azkuek bere Hiztegia kaleratu zuenetik eta, lerro pare baten baino ez bada, aipatu behar duguna da 1906

ean, Malatzaren azken egunetan, Toursek Mame argialetxean agertu zela hiztegiaren bigarren tomoa.

Apimena hau egin ondoren, esan dezagun Azkue Bizkaiko Otxandion bildu zuela kanta hau orain larogei urte delarik. Baina egunotan Euskalerrian zehar oso ezaguna den kanta hau lehenagotik zegoen Durangaldean erroiuta. Igarotako mendearren azken urteetan Bilboko Dotesiak argitaratu eman zituen Bartolome Erzi-llak, Mesias sarritan bildutakoaren egileak, ahots eta pianorako taiatutako kanta pilo bat. Tartean Durangoko Zilargilek egindako kanta pare bat agertzen da eta Aitor, ator abestiaren doinu eta hitzak dakarkigu. Durangoko Zilargileak Antonio eta Kruz izan ziren eta 1750 inguruan bizi. Beraz XVIII. mendearren erdirantz kantatzen zen abesti hau Durangaldean:

**Ator, ator mutil etxera
guztainak zimelak jatera
Gabon gaua zelebrutzeko
aitaren ta amaren ondoan,
ikusiko dok aita barreka
ama be poz atseginaz.
Eragiko mutil aurreko danbolinari
guztainak erre arteen (bis)
txipli txapla pum!
Gabon gaua pozik igaro daigun.**

Asko dira Euskalerrian Gabon giroko kanta herrikoiak. Errondan kantatzen direnak dira batzuk, eta hoiaren artean Olentzero eta Marijesiak. Etxeko sutondoan kantatzen direnak beste batzuk, erlijio kutsuokoko edo gure gastronomian aipatzen dituenak. Gaur errondako batzu aipatuko ditut eta Olentzeroren gaia beste ba-

tentzat utzi, Marijesiak ekarriko dituri honetara.

Gernikako Marijesiak dira famatuak Abenduaren 16an hasita Gabon egun goizterako, bederatzigarren haren, kantatzen direlako edo. Beste toki askotan Marijesiak Gabon egun edo gauetan bakarrik kantatzen dira: Durangaldeko herri askotan, Arriatzen, Ondarru eta Lekeition, Gernikako inguruetan. Baina Bizkaiatik aparte, Gipuzkoan ere kantatzen dira Marijesiak. Goierrin, esate baterako, kantatzen ziren, eta ahantzi gabekuz izango dira, kopla hauek:

**Jospe ta Maria beren Jasuekin
joan ziran Belenera gaurko gabarekin.
Aor goian etxea, jo daigun aite,
Gizonak leioara nekez irtezea.
Gizonak leioatik dio erantzuten:
Gabon ordu honetan zer dabilta
hemen?
Dontzella eder bat dakari nerekin al-
dean,
semea dakarrela bere sabelean.
Seme ta dontzella, hau nola diteke?
Guzuri eder hori, hortikan ken zait!**

Eta era berean beste ahapaldi batzu, Aita Riezuk bere "Flor de Canciones Populares Vascaas" liburu ederrean ematen dizkigunak, doinu ta guzti. Doinu desberdin batekin kantatzen dira Bidanien beste antzerako Marijesiak. Luis Urteagak harmonizatzen duen doinu hau ahotsetarako.

**Hogeta laugarrena degu abenduan,
desco genduna irixi genduan.
Gaueko hamabiak jo daben orduban,
gure salbatzailea jaio da munduan.**

Halako Marijesien testok bildu nahi dituenak, Eusko Folklore Elkar-

tearen Anuariora jo dezake. Baina badago oraindik egin gabeko lana eta heriz herri joanez gero, hainbat Marijesia eta Gabonetako kopla bildu beharko dira berandu izan ordako.

Gabon eguna joan zaigu urton, baina Gabon giroan gaudenez, Zorionak, irakurleak!

Jose Antonio ARANA MARTIJA

Escribo este comentario en la mañana de Navidad, cuando me viene a la memoria el hermoso poema de Lizardi dedicado a la muerte de su primer hijo Xabier ocurrida precisamente este día del año 1925. En la madrugada de hoy he oído el final del novenario de los Marijeses de Guernica. Y ahora mismo estoy oyendo la ronda de txistus y cantores que recorren las calles en ronda.

Por la noche, cuando celebremos la cena de Gabon, ¿en qué casa no se cantará el Aitor, ator mutil etxera? ven a casa, hijo o hija, que estás lejos en la cárcel, en el destierro, en un hospital, porque se han abierto las puertas de la paz.

Este hermoso canto merece un comentario. Fue Azkue quien lo imprimió en su Cancionero, diciendo que lo había tomado de dos claveros de Ochandiano. No puedo en este momento dejar de recordar que en 1981 se han cumplido 75 años desde que Azkue dio a la luz en la Imprenta Mame de Tours el segundo tomo de su gran Diccionario. Pero

volviendo al ya tan conocido poema en el País Vasco. Algunos dicen que en su historia anterior a la recopilación de Azkue. A fines del siglo pasado, durangués Barlotone Errieta, que del también tan conocido Mesias Errieta, imprimió en la Casa de Cultura de Bilbao una Colección de Canciones de Vizcainos para voz y piano. En ellos figuran dos que el arrieta, más ni menos que el famoso Aitor, los Plateros Antonio y Juan, que vieron a mediados del siglo XX para lo que podemos fijar para ser tanto una antigüedad de 250 años.

Muchos son los cantos de Navidad en el País Vasco. Algunos dicen que en su historia anterior a la recopilación de Azkue. A fines del siglo pasado, durangués Barlotone Errieta, que del también tan conocido Mesias Errieta, imprimió en la Casa de Cultura de Bilbao una Colección de Canciones de Vizcainos para voz y piano. En ellos figuran dos que el arrieta, más ni menos que el famoso Aitor, los Plateros Antonio y Juan, que vieron a mediados del siglo XX para lo que podemos fijar para ser tanto una antigüedad de 250 años.

Aunque el día de Navidad pasado, nos hallamos inmersos en un ambiente de las Navidades, pues que no llegue con retraso a los lectores mi felicitación.